



HERRI ADMINISTRAZIOETAN HIZKUNTZA NORMALIZATZEKO ZUZENDARITZAREN TXOSTENA

Espedientea: DNCG_LEY_2839/18_47

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egiteko Lege Aurreproiektuaren berri jaso dugu bide telematikotik Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzan uztailaren 10ean Tramitagune tresna informatikoaren bitartez, Emakunderen Informazio eta Lege Aholkularitza Eremuak bidalita, derrigorrezko txostena emateko eskatuz.

Eskaera horri erantzunez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua, eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuaren 14.1) artikulua oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

a) Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.

Abuztuaren 31ko 128/2007 Dekretuak xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezarri zuen: *“euskararen erabileraren normalizazioaren arloan eskumena duenak araua prestatzeko hasierako fasean esku hartu ahal izan dezan”*. Azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuak, aurrekoa indargabetuz, bere 4. artikuluan eskaera egiteko epea ezartzen du:

“Proiektua izapidetzen ari den sailak egingo du aholkularitza txostena emateko eskaria, hori taxutzeko espedientea behin behinekoz onartzeko agindua publiko egin ondoren, eta instrukzioa egin duen saileko zerbitzu juridikoak dagokion txosten juridikoa eman ostean”

Izapidetutako dokumentuetan jasotzen denez, aztertzea eskatzen zaigun xedapenaren alde aurreko onarpena martxoaren 7koa da eta, uztailaren 9koa Zerbitzu Juridikoaren txostena. Bete da beraz aipatu Dekretuak xede honekin arautua.

Bestalde, aipatzekoa da hasieratik zintzilikatu direla Lege Aurreproiektuaren euskarazko zein gaztelaniazko zatiak; beraz, bete dela abenduaren 22ko 8/2003 Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 7. artikulua. Artikulu hori jarraiki, alde aurreko onarpenak legearen testu osoari buruzkoa izan behar du; euskarazko zein gaztelaniazko zatiak barne.

Xedapen hori betearaztera begirakoa da Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakia, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idazteko neurriak onartu zituena:

“betiere dagozkion negoziazio, audientzia eta kontsultak egiteko izapideak egin baino lehenago; izapide horiek guztiak ele bitan dagoen testuarekin egin beharko dira. Ondorengo instrukzio faseetan ere, derrigorrezko txostenak eta irizpenak eskatzeko orduan, bi hizkuntza ofizialetan idatzitako testua bidaliko da.”

Ildo beretik, izapidetzearen baitan jasotako txostenek testuaren zati biak hartu beharko dituzte kontuan eta, urratsez urrats, egokitzapenak bietan egin beharko dira. Tramitazioaren baitan egiten diren moldaketak testuaren zati bakarrean burutzea (usadioak ikusita, gaztelaniazkoan oro har) eta amaieran horren itzulpena egitea lege urraketa litzateke; horrelakoetan, prozeduran erabilitako hasierako testuaren erdia alboratuz (euskarazko zatia, adibidez), izapidetzearen ibilbidea jarraitu ez duen testu berri bat onartzen delako.

Hori horrela, aurretik esan dugun bezala, Lege Aurreproiektuaren lehen bertsioaren euskarazko zein gaztelaniazko zatiak hasieratik zintzilikatu badira ere, txosten hau eskatu denean Tramitagunen Lege Aurreproiektuaren bigarren bertsioa aurkitu dezakegu, baina horren gaztelaniazko zatia besterik ez dugu momentuz aurkitzen.

b) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko eragina.

Xedapenaren edukia politika publikoen zeharkako gai bati buruzkoa izanik (genero berdintasuna) eta gure txostenaren esparrua ere politika publikoen beste zeharkako gai bati buruzkoa izanik (hizkuntza eskubideak eta euskararen sustapena), gainerako xedapen proiektuekin ez bezala, egoera berezi baten aurrean aurkitu gara.

Lege Aurreproiektuaren edukiek eremu asko ukitzen edo arautzen dituzte eta horietako gehienetan hizkuntza eskubideak eta euskararen sustapena kontuan hartu beharrekoak dira.

Halere, xedapena tentuz aztertuta bi arautze mota bereizi ditzakegu:

- a) Alde batetik, berdintasunaren eremuari estuki loturiko garapenak;
- b) Bestetik, berdintasuna zeharkako gaia izanik, beste eremu batzuetako ezarpenetan eduki behar duen eraginari buruzkoak.

Lehen multzoan kokatu ditzakegu, besteak beste:

- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal botere publikoen jarduketa gidatu eta bideratuko duten printzipio orokorrak;
- Berdintasun alorreko parte-hartzeak eta gardentasunak;
- Emakumeen eta gizonen ezberdintasun-egoerari buruz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriei buruzko sentsibilizazio-jarduerak;
- Berdintasunaren arloan zerbitzuak eman nahi dituzten entitateak homologatzerakoan erabili beharko diren oinarrizko betekizun eta baldintza orokorrak;
- Emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesteko diseinatutako planak, programak eta jarduerak;
- Elkarte, ekimen pribatu eta erakundeekin harremanak eta partaidetza eta lankidetzarako bideak;
- Herritarrei, eta batez ere emakumeei, informazioa eta orientabidea ematea emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duten baliabideei eta programei buruz;
- Langileei emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan oinarrizko prestakuntza mailakatu eta iraunkorra eskaintzea;

- Hezkidetzaren ardura duten irakasleen prestakuntza eta irakasle orok hezkidetzari buruz jaso beharrekoa;
- Familiako senide ez profesionalei eskaini beharreko prestakuntza;
- Enplegu zerbitzuko langileei eman beharrekoa;
- Sentsibilizazio-kanpainak emakumeen eta gizonen jokamolde soziokulturaletan aldaketak sustatzeko;
- Emakumeei zuzendutako programak eta jarduketak beren autonomia eta ahalduntzea sustatzeko;
- Eremu hauetan Euskal administrazio publiko bakoitzak langile guztiei bermatu beharreko nahitaezko hasierako prestakuntza eta prestakuntza jarraitua;
- Epaileen, fiskalen, justizia-administrazioko langileen (espetxeetakoak eta adingabeen zentroetakoak barne) eta gainerako eragile juridikoen emakumeen kontrako indarkeria matxistaren alorreko prestakuntza;
- Haur eta gazteekin lan egiten dutenentzako prestakuntza;
- Erakunde pribatuetako profesionalen prestakuntza, haien lan-eremua emakumeen kontrako indarkeria denean;
- Emakumeen aurkako indarkeria alorreko detekzio, arreta eta erreparazioari buruzko jarduketak;
- Euskal Osasun Zerbitzuak emakumeen kontrako indarkeria ororen biktima eta bizirauleei bermatu behar die osasun-arreta;
- Arreta espezializatuko zerbitzuak: aholkularitza juridikoa, laguntza psikologikoa, larrialdietako eta berehalako harrerako zerbitzuak, bizileku-baliabideak;
- Polizia arreta eta justiziarako sarbidea (informazioa, Biktimaren Arreta Zerbitzuak eta epaitegietako lantalde psikosozialak, lege-laguntza
- Letraduen, hasierako prestakuntza eta nahitaezko prestakuntza jarraitua.

Bigarren multzoan ere adibide ugari aurkitu ditzakegu, besteak beste:

- Aurrekontu publikoetan genero-ikuspegia txertatzea;
- Genero-ikuspegia txertatzea zehazki emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparrukoak ez diren planetan;
- «Sexua» aldagaia txertatzea pertsonen buruzko datuak biltzea dakarren edozein jardueratan;
- Genero-ikuspegia txertatzea zehazki emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzkoa ez den prestakuntzan;
- Enplegu publikoko lanpostuak eskuratzeko eta lanpostuz igotzeko hautapen-prozesuen gai-zerrendetan emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioari eta horrek administrazio-jardueran duen aplikazioari dagozkion edukiak sartzea;
- Arauak garatu eta aplikatzerakoan, baita planak, programak eta politika publikoak, kontratuak, dirulaguntzen programak eta administrazio-egintzak emateko beste tresna batzuk garatu eta aplikatzerakoan ere, euskal botere publikoek modu aktiboan izatea kontuan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko helburua;
- Euskal botere publikoek hizkera sexistarik ez erabiltzea, ez zuzenean, ez beste pertsona edo erakunde batzuen bitartez sortzen dituzten dokumentuetan eta euskarrietan;
- Administrazio-arau edo -egintza bat egiten hasi aurretik, euskal administrazio publikoek, hori sustatzen duen administrazio-organoen bitartez, ebaluatzea zein den proposamen horrek emakumeek eta gizonen kolektibo gisa bizi duten egoeran izan lezakeen eragina;
- Hautapen-epaimahaietan trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izango dela bermatzea;
- Genero-ikuspegia txertatzea kontratazio publikoan eta, beste neurri batzuen artean, emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak txertatzea adjudikazio-irizpideetan eta exekuzio-baldintza berezietan;
- Dirulaguntza publikoetan genero-ikuspegia txertatzea, eta hori ez ezik, berdintasuna sustatzeko eta emakumeen eta gizonen ezberdintasunak ezabatzeko neurriak ere balorazio-irizpideen zein pertsona fisiko edo juridiko onuradunen obligazioen artean;
- Euskal botere publikoen plan sektorialetan genero-ikuspegia txertatzea, eta hori ez ezik, baita berdintasuna sustatzeko eta emakumeen eta gizonen ezberdintasunak ezabatzeko neurriak ere;

- Genero-ikuspegia txertatzea Lanbidek zuzenean zein zeharka kudeatutako lanbide heziketa jardueretan;

Bigarren multzoan kokatzen diren kasuetan, hots, genero ikuspegia zeharkako politika bezala bultzatzen dutenak, uste dugu lekuz kanpo legokeela eskatzea hizkuntza ikuspegia ere txertatzea.

Planteamendu errepikakorra izateaz gain juridikoki ere ez zaigu egokia iruditzen. Bestela egingo bagenu, genero ikuspegiarekin batera hizkuntzarena ere ia artikulua guztietan txertatu beharko litzateke zeharkakotasunari lotuta egonik ere; eta, alderantziz, gauza bera hizkuntza eskubideei eta euskararen sustapenari bideratutako arau guztietan.

Gaia hobeto ulertze aldera adibide bat hartuko dugu.

4/2005 Legearen 17. artikulua berrirako testu hauek proposatzen dira (arau proiektuaren 1. bertsioaren euskarazko zatian):

17. artikulua.- Euskal administrazio publikoetako langileen trebakuntza.

*1. Euskal botere publikoek neurri egokiak hartu behar dituzte euren **langileei makumeen eta gizonen berdintasunaren arloan oinarritzko prestakuntza mailakatu eta iraunkorra eskaintzeko**, lege honetan biltzen diren xedapenak bete daitezzen eta, horretaz gain, administrazio-jardunean genero-ikuspegia benetan txertatzea ahalbidetuko duen jakintza praktikoa berma dadin.*

*3. Euskal botere publikoek **genero-ikuspegia txertatu behar dute zehazki emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzkoa ez den prestakuntzan**, eta horretarako, prestakuntza-eskaintzak aztertu eta dagozkion egokitzapenak egingo dituzte.*

Egokia iruditzen zaigu esatea Lege honek aurreikusi beharko lukeela 17.1 artikuluan ezarritako prestakuntza euskaraz jasotzeko bidea bermatu beharko dela.

Aldiz, 17.3 artikulua jomuga emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzkoa ez den prestakuntza izanik, zeharkakotasunagatik jasotzen denez, prestakuntza horren hizkuntza ezaugarriak bere alorreko araudian eta, zeharkakotasun izaerarekin, hizkuntza eskubideei eta normalizazioari buruzkoetan jasotzea dela egokiena.

Gauza bera, kontratazio publikoen esparruan, epaimahaien osaerari buruzkoan, etabar.

Halere, kezka puntu bat sortzen digu ikusteak *Euskadiko Toki-Erakundeetan Hizkuntza Ofizialen Erabilera Instituzionala eta Administratiboa Normalizatzeari Buruzko Dekretu-Proiektuari* Emakundek 2019ko apirilaren 24an sinatutako txostenean jasotzen direnak; honela irakur dezakegu:

(...)honako hobekuntza hauek proposatzen ditugu:

□ *Gogoratu, 4/2005 Legearen 2.3 artikuluan adierazitakoaren arabera, haren 3., 16., 18.4 eta 23. artikulua aplikagarriak zaizkiela botere publiko guztiei, baita erakunde pribatuei ere, baldin eta Erkidegoko botere publikoetako batekin kontratuak edo lankidetzak-hitzarmenak sinatzen badituzte, edo botere publiko horiek emandako laguntzen edo dirulaguntzen onuradunak badira. Horretarako, betebeharrak horiek guztiak sartu behar dira dekretu-egitasmo honen babesean arautzen diren hitzarmen/kontratu-eraketarako dirulaguntzen klausuletan edo irizpideetan.*

□ *Berdintasunerako Legearen 16. artikulua ezartzen duenarekin bat, beharrezkoa da sexu-aldagaia sartzeko dekretu-egitasmoak arautzen duen Euskadiko toki-erakundearen erregistro elektronikoa orokorrean, gero bertan jasoko diren datuak aztertu ahal izateko.*

□ *Bi gauza bermatu behar dituzte 33. artikuluan arautzen diren dibulgazio eta informazio-argitalpenek: batetik, hizkuntzaren erabilera ez sexista egin dadin; bestetik, irudietan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua eta ez-estereotipatua ager dadin.*

□ *Bestalde, gomendatzen da berdintasun klausulak txertatzea arauaren 3. eta 4. atalean. Horri buruzko informazio gehiago topa daiteke berariazko atal honetan: Berdintasunaren aldeko klausulak. Kontratu, dirulaguntza eta enpresetan berdintasunaren aldeko klausulak sartzeko. <http://www.emakunde.euskadi.eus/politikapublikoak/informazioa/berdintasunaren-aldeko-klausulak/>.*

□ *Arestian aipatu dugun bezala, beharrezko ikusten dugu, hizkuntza plangintzak eta hizkuntza politikak diseinatzerakoan, ezberdintasunak ezabatzeke eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketak zehatzak txertatzea. Horretarako, VI. kapituluaren arautzen diren proiektuetan, edota planetan, genero ikuspegia txertatzea ezinbestekoa izango da.*

Hemen jasotzen diren kasuak txosten honetan aurretik aipatutako bigarren multzoan kokatzen dira. Emakunderen txostenaren xede den arau proiektuan eremu horiek (hots, kontratazioak, hitzarmenak, diru-laguntzak, erregistro elektronikoa, dibulgazio eta informazio argitalpenak, hirigintza planak) ez dira zuzenean arautzen, hizkuntza betebeharrak besterik ez dira ezartzen.

Aurretik esan dugun bezala, gure iritzia da ez dela juridikoki egokia zeharkako gaiak ezartzen dituzten arau guztietan gainerako zeharkako gaiak ere txertatzea arau horiek berariaz garatzen duten esparruetatik kanpoko ezarpenetan.

Gure iritziarekin bat egiten baduzue, aipatutako bigarren multzoko ezarpenetan (ulertzen dugu ez direla zuek berariaz arautzen ari zareten esparruak) ez daukazue zertan hizkuntza eskubideei eta euskararen sustapenari loturiko ñabardurak txertatu. Guk ere horrela jokatzeko asmoa dugu.

Aldiz, zuen iritzia bada holakoetan ere txertatu beharra dagoela txosten honetan ondoren esaten zaionari gehitu beharko diezue ezarpen horiei guztiei buruzko hizkuntza aurreikuspenak.

Hasieran aipatu dugun lehen multzoko ezarpenei dagokienez, iruditzen zaigu hizkuntza ezarpenak txertatu beharko litzatekeela.

Lege Aurreproiektuaren edukia aztertuta aurkitzen ditugun hizkuntza aipamen bakarrak dira: hizkera inklusibo ez-sexista erabiltzea eta biktimei informazioa ematea ulertzen duten hizkuntza batean eta modu argian. Horietaz gain, 4/2005 Legearen 25. artikuluan hizkuntza normalizazioaren esparruko jardueretan genero diskriminazioaren aurkako neurriak hartzeko betebeharra ezartzen du. Ez dago hizkuntza eskubideak bermatzeari ez eta euskara sustatzeari buruzko inolako aipamenik.

Aipatutako lehen multzoan kokatzen diren jardueren artean batzuk herritarrei oro har zuzenduak dira, biktimei beste batzuk eta langileei zein profesionalei gainerakoak.

Hizkuntza gaia modu egokian jasotzeko proposatzen dizuegu:

- a) 4/2005 Legearen 3. artikuluen lehenengo lerroaldean, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal botere publikoen jarduketa gidatu eta bideratuko duten printzipio orokorren artean txertatzea hizkuntza eskubideen bermea eta euskararen sustapena.
- b) Artikuluren baten ezartzea herritarrei zuzendutako arreta esparru guztietan (osasuna, polizia, juridikoa...) hizkuntza hautua (euskara, gaztelania) bermatu beharko dela.
- c) Gauza bera herritarrei zuzendutako prestakuntza, parte-hartze eta sentsibilizazio jardueri buruz.
- d) Langileei eta profesionalei zuzendutako jardueretan euskararen sustapenaren aldeko ezarpena txertatzea.

Azkenik, txosten honen esparrutik kanpoko gaia izan arren, akats txiki batzuk izan daitezkeenak antzeman ditugu testuaren 1. bertsioaren euskarazko zatian:

- Zioen azalpenean honela dio:

*legeak indarkeria horren **gainerako** adierazpenen **gainerako** biktimentzako*

- Bosgarren artikuluan:

*4/2005 Legearen 3.2 **in fine** artikulua*

egokiagoa iruditzen zaigu bertako hizkuntza erabiltzea.

- Hogeita bederatzigarren artikuluan:

makumeen

- Berrogeita laugarren artikuluan:

*Prestakuntza eskaintzea familiako **senide** ez profesionalei*

uste dugu senide ordez **zaintzaile** esan nahi izan dela.

Horietaz gain, 4/2005 Legearen 25.2 artikuluan, gaztelaniazko zatian, honela dio:

Las administraciones públicas vascas no podrán conceder ningún tipo de ayuda ni sus representantes podrán participar en calidad de tales en ninguna actividad cultural.

Zer edo zer falta dela ematen du.

Laguntze aldera ohartarazten dizuegu, zuzendu ahal dezazuen egokia baderitzozue.

Adeitasunez,

Joseba Lozano Santos
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria